

Euskal AEko biztanleen batez besteko errenta ia 800 €-tan gehitu da 2017an, %3,9 gehiago

Euskal AEko batez besteko familia-errenta 42.940 €-koa izan da 2017an, aurreko urtean baino %1,9 gehiago

Euskal AEn bizi diren 18 urte eta gehiagoko biztanleen batez besteko errenta pertsonala 21.083 €-koa izan da 2017an. Kopuru hori %3,9 igo da aurreko urtearekin alderatuta, Eustatek Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiekin lankidetzan egindako Pertsonen eta Familiaren Errentaren Estatistikaren arabera.

Lurralde-banaketari dagokionez, ia 2.000 €-ko aldea dago Gipuzkoan lortutako batez besteko errenta pertsonalaren (22.086 €) eta Bizkaian (20.654 €) eta Araban (20.410 €) lortutakoen artean. Bizkaiak gorakada handiagoa izan du aurreko urtearekin alderatuta (+%4,2), Gipuzkoaren (+%3,9) eta Arabaren (+%2,6) aldean.

Hiriburuetan, aipatutako lurralde arteko aldeak areagotu egiten dira: Donostian bizi diren pertsonen batez besteko errenta 25.141 €-koa da, Bilboko 21.245 €-koa eta Gasteizko 20.643 €-koa baino handiagoa. Donostiak eta Bilbok Euskal AEko batezbestekoa gainditzen dute, eta Gasteiz, berriz, azpian da.

Batez besteko errenta pertsonala, motari jarraiki, lurralde historikoaren eta sexuaren arabera (Eurotan). 2017

	Euskal AE			Araba/Álava			Bizkaia			Gipuzkoa		
	Total	Gizonak	Emakumeak	Total	Gizonak	Emakumeak	Total	Gizonak	Emakumeak	Total	Gizonak	Emakumeak
Errenta guztira	21.083	26.519	16.074	20.410	25.484	15.597	20.654	26.168	15.661	22.086	27.554	16.972
Lanaren errenta	12.681	16.025	9.601	12.594	15.694	9.653	12.472	15.816	9.444	13.062	16.509	9.838
Capital errenta	1.744	2.053	1.459	1.384	1.644	1.136	1.652	1.941	1.390	2.057	2.419	1.718
Jardueren errenta	995	1.402	621	952	1.310	613	972	1.396	588	1.053	1.453	679
Transferentziak	5.662	7.040	4.393	5.480	6.836	4.195	5.558	7.015	4.237	5.915	7.172	4.738
Errenta baliagarria	17.615	21.873	13.693	17.084	21.049	13.325	17.238	21.517	13.364	18.470	22.819	14.403

Iturria: Eustat. Errenta pertsonal eta familiarren estatistika

18 urte eta gehiago dituzten egoiliarren artean eta errentaren banaketari dagokionez, %60,1 daude Euskal AEko batez besteko errentaren azpitik, baina hartu behar da kontuan, dena den, ezen multzo horretan daudela sartuak baita 2017an errentarik batere jaso ez dutenak ere (%12,9). Beste muturrean, populazioaren %11k du batezbestekoa bikoizten duen errentarik; alegia, 42.166 € pasa.

Biztanleria bi zati berdinetan banatzen duen errenta zein den adierazten duen adierazlea da mediana. 2017an balio hori 16.371 €-koa izan da; hau da, Euskal AEko adin nagusiko biztanleen erdiek urtean 16.371 €-tik gorako batez besteko errenta pertsonala dute, eta beste erdiek errenta txikiagoa.

Errenta erabilgarria kontuan hartuta –hots, guztizko errentari errentaren gaineko zerga eta langilearen konturako gizarte-kotizazioak kenduta–, alde batzuk dira hiru lurraldeen artean. Halatan, 2017an Euskal AEko osorako errenta erabilgarria 17.615 €-koa izan zen (aurreko urtean

baino %3,6 gehiago), eta Gipuzkoan 18.470 €-koa, Bizkaian 17.238 €-koa eta Araban 17.084 €-koa.

Genero-aldeari dagokionez, ikus daiteke Euskal AEko gizonen errenta emakumeena baino 10.000 € handiagoa dela. Hala, gizonek 26.519 €-ko batez besteko errenta dute, eta emakumeek 16.074 €-koa. Alderik handiena 65-69 urte bitartekoen artean erregistratu da; tarte horretan gizonek 17.309 €-tan gainditzen dituzte emakumeak.

Adinaren arabera, guztizko errenta pertsonal handiena 55 eta 59 urte bitartean lortzen da, bai emakumeen kasuan, bai gizonen kasuan ere, eta 27.387 €-ko batez besteko errenta lortzen da multzo osorako, emakumeentzat 20.747 €-koa eta gizonentzat 34.436 €-koa.

Euskal AEko batez besteko errenta pertsonalaren bilakaera, errenta-motaren arabera (eurotan). 2015-2017

	2015	2016	2016/2015 (%)	2017	2017/2016 (%)
Errenta guztira	19.968	20.295	1,6	21.083	3,9
Lanaren errenta	11.950	12.182	1,9	12.681	4,1
Capital errenta	1.646	1.661	0,9	1.744	5,0
Jardueren errenta	952	963	1,2	995	3,3
Transferentziak	5.419	5.489	1,3	5.662	3,2
Errenta baliagarria	16.731	17.000	1,6	17.615	3,6

Iturria: Eustat. Errenta pertsonal eta familiarraren estatistika

Errentaren %60,1 lanetik dator

Euskal AEko egoiliarrek 2017ko ekitaldian jasotako errentaren osaerari dagokionez, errentaren %60,1 lanetik dator, batez beste 12.681 € (aurreko urtean baino 500 € gehiago), %26,9 transferentzia edo gizarte-prestazioetatik (5.662 €), %4,7 jarduera ekonomikoetatik (995 €) eta %8,3 kapitaletik, higigarria zein higiezin (1.744 €).

Euskal AEko familien batez besteko diru-sarrerak batez besteko errenta pertsonala 2 aldiz dira

Euskal AEko batez besteko familia-errenta 2017an 42.940 €-koa izan da. Guztirako familia-errenta zera da, familia bereko kideen errenta pertsonalen batuketak. Hala nola gertatzen baita errenta pertsonalaren kasuan, Gipuzkoa da lurraldea zeinek duen errenta familiar altuena, 44.943 €; ondoren Bizkaia dator, 42.492 €-rekin, eta Araba 40.203 €-rekin.

2016ko datuekin alderatuta, Euskal AEko batez besteko familia-errentek %1,9 egin dute gora, eta Gipuzkoan izan da hazkunderik handiena (%2,4); ondoren, Bizkaian (%1,7) eta Araban (%1,2).


Donostia da familia-errenta handiena duen hiriburua (51.275 €), eta, ondoren, Bilbo (42.805 €) eta Gasteiz (40.302 €) daude.

Eskualdeei dagokienez, bada alderik Euskal AEko hogeik eskualdeen artean. Horietatik bederatzik batezbestekotik gorako familia-errentak dituzte, eta nabarmentzekoak dira Plentzia-Mungia (50.653 €) Bizkaian, Gorbeialdea (49.599 €) Araban eta Urola Kosta (46.370 €) Gipuzkoan. Bestalde, gainerako hamaika eskualdeek batezbestekotik beherako familia-errentak dituzte, eta, sailkapenaren behealdean, honako hauek daude: Bidasoa Beherea (40.121 €) Gipuzkoan,

Enkarterriak (36.191 €) Bizkaian eta Arabako Errioxa (33.946 €). Azken hori da Euskal AEko familia-errentarik baxuena duena.

Bestalde, bada alderik errenta familiarretan jasotzaile nagusiaren sexuaren arabera. Familian errenta-jasotzaile nagusia gizon denean, batez besteko diru-sarrerak 47.235 € dira eta familia gehienak geruza ertain eta goikoetan metatzen dira, eta, emakume denean, familiaren batez besteko errenta 37.405 €-koa da eta beheko errenta-geruzetan daude; 9.001-12.000 €-ko geruzan familia horien %8 daude. Hala eta guztiz ere, komeni da ez ahaztea ezen lehen taldeko familien tamaina bigarrenekoena baino zertxobait handiagoa izan ohi dela (18 urte eta gehiagoko 2,2 pertsona, 1,8 pertsonaren aldean), eta, beraz, lehenengoen errenta 21.470 €-koa izango litzateke, eta bigarrenen errenta, berriz, 20.440 €-koa.

Familiak, famili errentaren geruzari jarraiki, hartzaile nagusiaren sexuaren arabera. Euskal AE (%). 2017



Iturria: Eustat. Errenta pertsonal eta familiarren estatistika

Familien %62,8k Euskal AEko batezbestekoa baino errenta txikiagoa jasotzen dute edo ez dute inolako errentarik jasotzen; azken egoera horretan daude familien %2,2 2017an. Aldiz, familien %8,7k batez bestekoa bikoizten duen errenta dute; hau da, 85.880 €.

Adinari dagokionez, hartzaile nagusia 40 urtetik beherakoa edo 70 urtetik gorakoa duten familiek Erkidegoko batezbestekoa baino diru-sarrera txikiagoak dituzte, eta gainerakoak, berriz, gainetik dira.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62